

AUTOEBALUAZIOA**IV. MODULUA: SENDAGAIEN ADMINISTRAZIOA SUDUR-BIDETIK**

1. Farmakoen sudur-bidezko xurgapena:

- a) Konposatu hidrofiloen kasuan barriadura pasiboz egiten da
- b) Gehien bat barriadura pasiboz egiten da
- c) Sudur-mukosak ez dauka endozitosi-bidezko xurgapenerako gaitasunik
- d) Sudur-mukosak ez dauka garraiatzaile-bidezko xurgapenerako gaitasunik

2. Sudurra administrazio bide bezala erabiltzeko kontutan eduki behar da:

- a) Mukosaren gainean dagoen fluidoaren pH-a hainbat gaixotasunekin aldatzen da
- b) Sudurreko mukosak ez dauka aktibitate entzimatikorik
- c) Argitzapen mukiziliarrak farmakoen xurgapena errazten du
- d) Administratutako farmakoen ezaugarri farmakologikoez ez dituzte mukosaren ezaugarriak aldatzen

3. Sudur-bidetik administratzeko formulazioak:

- a) Haien eraginkortasuna handitzen da biskositatea handitzerakoan
- b) Orokorrean formulazio hipotonikoak hipertonikoak baino erasokorragoak dira sudurreko mugimendu ziliarrarentzat
- c) Bakarrik tokiko eragina lortzeko erabiltzen dira
- d) Formulazioaren pH-ak ez du formulazioaren eraginkortasunean inolako eraginik

4. Sudur-bideko xurgapena hobetzeko estrategia egokiena aukeratu:

- a) Formulazioan terbutalina bezalako sustantzia baso-aktiboak gehitzea
- b) Xurgapen-sustatzaile bat erabiltzea
- c) Korrante elektrikoa erabiltzea (iontoforesia)
- d) Mikropartikulak erabiltzea

5. Zein xurgapen-sustatzailearen ekintza-mekanismoa da mukosaren mintz lipidikoekin mizelak eratzea, poro urtsuen aldi baterako eraketa erraztuz?

- a) Behazun gatzak
- b) Laurato sosikoa
- c) Lisofosfatidilkolina
- d) AEDT